


# Katearen Begiak

Iñaki Petxarroman  
Txalaparta



## *Aurkibidea*

*Inaki Petxarroman*.....1

*Sarrera*.....1

## *Katearen Begiak*

◆ <u>Kokapena</u> .....	2
◆ <u>Gaia</u> .....	2
◆ <u>Argumentua</u>	
• Antso Azkarra: Arrano beltzaren hegal moztua.....	2
• Pedro Mariskala: Nafarroaren amets odolostua.....	3
• Rose Iturbe: Lapurtarren sufrimendu anonimoa.....	3
• Agosti Xaho: Zumalakarregiren arrastoan.....	4
• Manuel Santa Kruz: bigarren porrot handia.....	4
• Fortunato Agirre: lizarraren hostoa bezala.....	5
• Gloria Rekarte: azken begirada.....	5
◆ Gertakizun nagusiak.....	6
◆ Egituraketa.....	6
◆ Pertsonaiak	
• Antso Azkarra.....	6
• Pedro Mariskala.....	7
• Rose Iturbe.....	7
• Agosti Xaho.....	7
• Manuel Santa Kruz.....	7
• Fortunato Agirre.....	8
• Gloria Rekarte.....	8
◆ Baliabideak.....	8
◆ Iritzia.....	9

*Bibliografia*.....12

## Iñaki Petxarroman

Iñaki Petxarroman, duela 30 urte jaio zen Lasarten. Kazetaritzan lizentziatua, Egunkarian lan egin zuen gogor, Gizartea sailean bost urteetan, eta agian horregatik ez da ezezaguna euskal irakurlearentzat. Egunkaria itxi zutenetik askotan irakurri ahal izan dugu prentsa askatasunaren inguruko bere hitzak. Bere iritziz, “Egin” aldizkaria ixtearekin hasi zen euskal herrian prentsa askatasunaren bermatzea. Espainiar estatuak Euskal Herriko prentsaren aurka eginiko ekintzen kontra adierazten da gazte abertzalea den Iñaki.

Liburugintzan, bi liburu baino ez ditu idatzi. Lehenengoa 2000. urtean argitaratu zuen Txalaparta argitaletxeak, Nafarroa: iragana eta geroa, Gaztelak Nafarroako Erresuma itsas irteerarik gabe utzi zuenetik 800 urte igaro zirenean. Ezbairik gabe, Petxarromanek historia gerturatu nahi izan du berriro ere bere bigarren lanarekin, Katearen begiak. Bi nobelak nahiko berdintsuak diren arren, izan ere, biak nobela historikoak dira, azken honen argumentua zazpi zatitan idatzi du. Atal bakoitzean istorio bat kontatzen du, bere ustetan euskal herriko historiaren zazpi atal garrantzitsuenak alegia.

## Sarrera

Aurten argitaratu den *Katearen begiak*, nobela historikoa da, narrazio luze bat, non Iñakik zazpi pertsonai historikoen gorabeherak kontatzen dituen. Hauen artean, Antso Azkarra erregea, Marokora bidaiatu zuena, hango erregearen laguntzaren bila; Agosti Xaho zuberotarra eta Santa Kruz apaiza ezaguna. Bi emakume ere ageri dira, Rose Iturbide eta Gloria Rekarte, ezezagunak biak irakurle gehienontzat. Aukeraketa, Petxarromanek adierazi duenez, subjektiboa izan da, azpimarratuz garrantzitsuena ez direla pertsonaiak, baizik eta bizitza egokitu zitzaien garai historikoak. Autoreak historiaren zazpi atal hautatu ditu, XII. mendetik gaur eguneraino. Nafarroak mendebaldeko lurak galdu zituen hasten da kontakizuna, 1200. urtean. Bigarrenez, independentziaren galeraz jarduten du. Gero, Frantziako iraultzan jakobino berdintzaileek Lapurdi, Nafarroa behera eta Zuberoako foru eta herriaren kontra eramandako ekintza bortitzak kontatzen dizkigu. Baita ere, bi karlistadak kontatzen ditu, Nafarroaren foruen ezabatzea ere kontatuz. Azkenez, mende honetako errepublika eta Espainiako gerra garaia eta trantsizio garaia azaltzen dizkigu, Petxarromanek, hori bizi izan zuten pertsonai batzuen ikuspuntutik. Eleberri formadun lan honekin, irakurtzen gauden aldi berean historia errepasatzeko eskaintza ere badugu. Bi aukera beraz: entretenimendua, sentsazioak, alde batetik, eta kultura, bestetik. Estiloari dagokionez, “modu irakurterrazean egiten saiatu naiz liburua, hain justu horretarako, askotan hain korapilotsua egiten zaigun historia modu arinagoan eskaintzeko. Horregatik, historiaz beteriko istorioak kontatzen ditu liburua” esaten du autoreak.

## Katearen begiak

### **Kokapena**

Istorio bakoitzak bere kokapen zehatzagoa badu ere, esan daiteke, gertakizunak euskal herrian kokatzen direla. Lan honetan, euskal herriak historian zehar pairatutako presio eta sufrimendua argi geratzen da. Garaiari dagokionez, istorioak 1 200. urtean hasten dira, gaur egun arte.

### **Gaia**

Dударik gabe, Katearen begiak nobelaren gaia euskal herriak historian zehar jasotako eraso amaigabeak dira eta hauek sortutako ondorio eta aldaketak bai herriarentzat bai historiarentzat. Liburuan arrotzek independentziaren aurkako ekintzak deskribatzen ditu.

### **Argumentua**

#### ***Antso Azkarra: Arrano beltzaren hegal moztua***

Kontakizun hau, Nafarroako erresumako lurretan gauzatzen da. Istorioaren protagonista Euskal Herriko azken errege izandakoa da, hots Antso Azkarra. Abu Jakob Miramolin erregeak bere alaba eskaini zion ezkontzan Antsori, horrela garai hartan mairu eta euskaldunen etsaia zen Alfontso VIIIa Gaztelako erregearen aurka aliatuz.

Hasiera batean ezetz esan bazuen ere, urteak joan ahala, gaztelarren erasoak areagotu ziren Nafarroako erresuman eta Antso Azkarrak bi urte lehenago mairu erregeak eskainitako aliantza onartu zuen.

Nafarroako erregea Abu Jakobekin alabarekin ezkontzera joan zenean, egoera kaskarrarekin aurkitu zen bertan. Abu Jakob hilda, bere semearen aurka matxinatu ziren hainbat noble. Bere emaztea izan beharko zena ezagutzera joan zenean, gatibu hartu zuten, eta borrokara behartu. Antso Nafarroako lurretatik urrun zen bitartean, gaztelarrek, nahiz eta izugarritzko erresistentzia heroikoa jasan, Gasteiz hartu zuten eta Nafarroa itsas irteerarik gabe geratu zen.

1212. urtea zela, Gaztelako erregea gaixotu egin zen, eta Antsorentzat galdutako lurak berriz bereganatzeko aukera bikaina bazen ere, mairuen kontrako guda santura joan behar izan zuen. Horrela, bide batez, mairu erregearen kontra mendekatu zen. Antso erregeak egindako balentriaren oroigarri, gerra irabazitakoan, Miramolin babesten zuten kateak hartu eta Iratxe, Orreaga eta Tuterako gazteluetan gorde ziren.

Galdutako lur eta gazteluen obsesioak jota, Nafarroako errege izan beharko lukeen seme bat eduki ezinak penaturik eta hegal bat moztu zioten Arrano Beltzaren irudia burutik ezin kendu hil zen antso Azkarra erregea, 1234. urtean, Tuterako bere gazteluan. Errege mairuaren kateak jarri zizkieten hilotzari, Arrano Beltzaren oihal erdibituaren gainean.

### ***Pedro Mariskala: Nafarroaren amets odolustua***

1512. urtea zen eta Pedro Mariskala, Joan III eta Katalinaren konfiantzazko militarra, Fernando II.aren gudarostea gelditzeko asmoekin zegoen Burgosen. Guda bide diplomatikotik eteteko ezinezkoa zirudiela, errege katolikoek Pedro espainiarren aurka Nafarroa eta Frantziak egindako aliantzaz akusatu zuten. Aurrera beharrez, errege katolikoek gudarosteak Nafarroa hartu zuten eta Pedro eta Joan III erregea Biarnora alde egin behar izan zuten.

Fernando II hil zenean, 1516. urtean, hiru urte lehenago saiatu bezala, galdutako lurak berreskuratzen saiatu ziren nafarrek baina egindako hotzak eta Donibane Garaziko gaztelua berreskuratzean denbora gehiegi emateagatik ez zuten lortu. Soldaduak salbu usteko, Pedro eta kargu gorenak bere burua entregatu zuten. Kargu gorenak askatuak izan baziren ere, Pedro ez zuten askatu.

Bere lurak zirenak berreskuratzeko hirugarren saiakera bat egin zuten nafarrek 1521. urtean, baina aurrekoetan bezalaxe, saiakuntza porrotean amaitu zen. 1523an, Karlos I. goak Pedro mariskalaren biziarekin bukatzeko agindua eman zuen, nafarren matxinadekin bukatuz.

### ***Rose Iturbide: Lapurtarren sufrimendu anonimoa***

Rose Iturbe, Sara herriko familia arrunt baten alaba zen. Rose Iturberi garai latzak bizitzea tokatu zitzaion, Frantziako iraultza ondoren iparraldeko euskaldunek jasotako errepresioa hain zuzen ere.

Frantziako botere aldaketekin bat, elizaren boterearen murrizketa gertatu zen. Egoera hartan, abade eta apaiz zirenak elizaren kontra agertzen ziren eta konstituzio berriari men egitera behartuta ikusi ziren. Sara herriko abadeak ordea uko egin zion sinatzeari eta Frantziako gobernuak apaiz berria jarri zuen bere ordean. Are gehiago, biltzar guztiak baliogabetu zituzten, Lapurdiko biltzarra barne. Saran elizara joan beharrez, herriko baserri batean biltzen ziren Tolosatik atera berri zen apaiz gazte baten mezan. Honen berri izan zuten bezain laster, frantsesak apaiz gaztea atxilotu egin zuten.

Frantziak Sarako herritarrak desleial eta espioitzat hartu zituzten, beste ipar euskaldun guztiei bezalaxe, eta hain lurraldeetatik at eraman zituzten. Rose gaztetxo gaixorik zegoen egun berean eraman zituzten Saratar familiak erbesteratuak, aita alde batetik, aitona bestetik eta ama alaba beste batetik eraman ere. Familia berriz elkartu zenerako, Rose gaixoa, oso gaizki zegoen eta gutxira hil zen. Erbestean urte bat egon ostean, berriz itzuli ziren bere herrira Saratarrak eta beste euskaldunak ere, baina ezin izan zuten pasatutakoa inoiz ahaztu, izan ere bidean geratu ziren senide eta lagunak ez ziren gutxi izan.

### ***Agosti Xaho: Zumalakarregiren arrastoan***

Lehenengo karlistada garaian bizi izan zen Agosti Xaho, sozialista utopikoa zen idazle euskalduna. Istorioa Agosti liburu bat idatziko duela hasten da. Bere nahia, karlistaden benetako zergatiak argitzea zen, izan ere Europarrak euskaldunon ideiak atzerakoiak ikusten zituzten.

Bere nahia lortzeko helburuaz irten zen Paristik 1835eko martxoaren batean Euskal Herrirantz. Kontrabandista batzuen laguntza jaso zuela heldu zen Baionatik Espainiara. Lesakako botikariarekin, Pedro Harismendirekin elkartzea lortu zuen eta honi esker Sagastibeltza kapitainarekin hitz egitea.

Donezbesten karlisten buruekin igaro zuen aste bete, zortzigarren egunean Lekunberrira bidaiatu zuten liberalak inguruan zituztelako. Bertan ikusi zuen lehen aldiz Zumalakarregi eta bertan izan zuen berarekin hainbeste desatzen zuen elkarrizketa.

Liburua idazteko informazio nahikoa izan zuen Zumalakarregirekin izandako hitzaldiaren ostean eta Parisera itzuli egin zen. Hiru hilabeteren buruan, Bilbon hil zen Zumalakarregi erasoaldi batean. Zumalakarregi jeneralaren heriotzarekin, karlistek lortutako lur guztiak galdu zituzten, liberalen menpe geratu baitziren lur horiek guztiak eta guda bukatutzat eman zen.

### ***Manuel Santa Kruz: bigarren porrot handia***

Manuel Santa Kruz euskal apaiza da bigarren karlistadak kontatzen dituen istorio honen protagonista. Ernialdeko apaiza armak ezkutatzeagatik salatua izan zen eta beraz atxilotua. Espetxerako bidean, ihes egitera lagundu zuten baserritar batzuk eta Tolosako lagun baten bila joan zen. Honek Lapurdira igarotzera lagundu zion eta bertan zegoela 1870.ean hainbat karlista ospetsu ezagutu zituen.

1872.ean gertatu zen karlisten altxamenduarekin batera, apaizak Gipuzkoako partidarekin egion zuen bat. Hasi bezain laster bertan behera utzi zuten mugimendua eta armak entregatu zituzten. Santa Kruz eta beste hamasei lagun frontera pasatu eta armak berreskuratzeko asmoz konboi bat eraso zuten. Lehen esan bezala, berriz hartu zuten preso Manuel Santa Kruz eta berriz ere ihes egitea lortu zuen baserritar bati esker.

Bera 50 lagun buru zela berriz bueltatu zen Lapurdira eta beste saiakera bat egin zuen urte amaieran. Taldea handitzen zela eta, liberalak erasotzea erabaki zuten eta Santa Kruzen arreba bahitzea izan zen bere ekintza. Hau aska zezaten, liberal aberats bat bahitu eta tratu baten ondorioz arreba Josefa liberatu zuten.

Apaizaren buruari prezioa jarrita zioten jadanik, alde egitea deliberatu zuenean eta Londresen zela, Karlos erregearen bisita izan zuen. Honek armetara itzultzeko erregutu zion apaizari, baina berak bazuen Amerikara joateko erabakia hartuta eta ezezko borobila eman zion erregeari. Santa Kruzen ihesa lur jota utzi zituen euskaldunen gogoak eta guda irabazi zuten berriz ere liberalek.

### ***Fortunato Agirre: lizarraren hostoa bezala***

Espainiako bigarren errepublika garaian Lizarrako alkatearen kontakizunen inguruan mintzo da batez ere autorea istorio honetan.

Militar karlisten mugimendu arraroak sumatu zituen Iratxeko konbento inguruan Pantaleon fraidearen bisita jaso zuen Fortunatok. Matxinada zen, karlistak falangistekin zituzten hizketaldi ugarien emaitza bakarra.

Bitartean, Fortunato pozez zoraturata zebilen bere emaztearen haurdunaldiarekin. Beste bi seme zituen arren, guztiz emozionatzen zuen aita berriz izatearen ideiak. Falangistak eta karlistak altxatzeko prest zeudela, Fortunato Iratxen zebiltzan militar garrantzitsuak atxilotzeko baimena lortzeko nahiarekin errepublikaren buruarekin hitz egitea lortu zuen. Casares Quirogak ez zion kasurik egin eta, beraz, militarrek altxatu egin ziren.

Militarrak liberal eta nazionalistak atxilotzen zituztela ikusita, Fortunato gurasoen etxera joan zen eta bertan atxilotu zuten. Denboraren poderioz, preso desagertuen kopurua handitzen zen eta kartzelako giroa geroz eta okerragoa zen, fusilamentuak areagotzen ziren heinean.

Egoera ikusita, Fortunatoren emaztea zen Elvirak, txikitatik ezagutzen zuen militar karlista garrantzitsu bati bere senarra ez fusilatzen eskatu zion, eta honek bere hitza eman zion. Hala ere, Fortunato beste asko bezalaxe fusilatua izan zen, bere ahotik askatasunaren aldeko hitzak oihukatzen zituela.

### ***Gloria Rekarte: azken begirada***

Istori hau, guztien artean, gaurko garaia gehien atxikitzen zaiona da, izan ere kronologikoki azkena da. Franko hil baino hil batzuk lehenago kokatzen da eta bere protagonista Iruñako gazte nazionalista den Gloria Rekarte da.

1975.eko irailean, Txiki eta Otaegi militante abertzaleak fusilatu izanak eragin handia izan zuen herriarengan. Herri osoa tristuraz beteta zegoen manifestaldiak ugariak ziren. Gertaera hau, guztiz goibelduta utzi zuen Gloria ere. Hilabete pare bat geroago, Frankoren heriotzak jai giroz, festaz eta parrandaz bete zituen Euskal Herriko izkina guztiak, baina aldatetak etortzeaz zeuden eta poliziak gogor astintzen zituen herritarrak. Giro kaskarra bazegoen, Lemoizko zentral nuklearra eraikitzen planak arazo gehiago ekarri zizkion herriari. Manifestaldiak nonahi ziren eta poliziak gogor eta indarrez deuseztatzen zituen poliziak.

Hau ikusi eta gero, Gloria ETARI informazioa pasatzen hasi zen. Urte batzuk igaro zirenean, Gloria ETAN sartzeko baimena eskatu zion bere kontaktuei. Sartzea lortu zuenean eta entrenamendu militarra jaso ondoren, beste bi kideekin komando bat eratu zuten. Baina komandoak erraketa baten ondorioz inuzente bat hil zuten bonba batekin. Hau guztiz hunkituta utzi zuen Gloria, eta buruari bueltak ematen egon zen luzaro, pentsakor. Bitan suerte handia izan bazuten ere, Guardia Zibilen eskutan erortzeko zorian zeudela libratu ziren arren, Joxe Arregi torturen ondorioz hil zen egun batzuk geroago harrapatu zituzten bera eta bere bi kideak. Hamar egunez inkomunikatuak egon ziren eta izugarrizko torturak jasan behar izan zituzten. Gero espetxeratu zituzten eta 2000. urtean Gloria libre geratu zen.

## **Gertakizun nagusiak**

Nobela hau, zazpi gertakizun nagusien inguruan antolatuta dago. Gertakizun bakoitza jakinarazteko istorio bat kontatzen digu autoreak. Beraz, istorio edo kapitulu bakoitza gertakizun baten inguruan da.

Lehenengo istorioan, nola Antso Nafar erregea kanpoan zela gaztelarrek Gasteiz hartu eta Nafarroa itsas irteerarik gabe geratu zen kontatzen da. Bigarrenean, 1500. urtean kokatzen da eta Pedro mariskala armada burua da protagonista. Honetan nafarrek haien lurak berreskuratzeko egindako ahaleginak kontatzen dira. Hurrengoan, hirugarrena beraz, euskal herriko iparraldean gertatutako Frantziako iraultzaren ondorioak kontatzen ditu. Horretarako Saratar famili arrunt batez baliatu da eta beraien bizipenen inguruan mintzo da, Rose Iturbe, familiako alaba delarik protagonista. Laugarren eta bosgarren gertakizunak, bi guda karlisten gora beherak dira, protagonistak idazle euskaldun bat, Agosti Xaho, eta euskal apaiz gerrillari bat, Santa Kruz dira hurrenez hurren. Seigarren eta zazpigarren gertakizunak, azkenak, Nafarroan gertatzen dira batez ere, lehena guda zibila garaian, Lizarrako alkatearen inguruan gertatutako gatazkak adieraziz eta azkena Frankoren heriotza ondorengo trantsizio garaian, ETako kide baten ikuspuntutik.

## **Egituraketa**

Zazpi istorio independentek osatzen dute nobela, bakoitzak kapitulu bat delarik. Narrazio bakoitzaren haria zuzena edo lineala da, ez du denboran atzera egiten. Izan daiteke, pertsonai batzuen pentsamenduak adierazterakoan denboran zertxobait atzera egitea, baina honek ez du eraginik istorioaren linealtasunarekin.

## **Pertsonaiak**

### ***Antso Azkarra***

Nafarroako errege, bere gazteluko dorre nagusitik ikus zitekeen paisaia, lurraren ugaritasun oparoa maite zuen. Ehizan egiten zuen eta edozeren gainetik kristaua zela defendatzen zuen. Bere erresumaren mugan bizitzea erabaki zuen Antso Azkarrak eta Iruñeko errege jauregia noizbehinkako denboraldietarako utzirik. Erregeak, biziki maite zuen bere arreba, Ingalaterrako erregina, txikitatik ordu ugari eman zituzten elkarrekin jolasean, sekretuak elkarrekin konpartitzen. Gizon indartsu eta handia zen, baita militarri trebea. Gudan trebea eta adoretua izandakoa, izan ere, beti deuseztatu zituen arrotzen erasoak.

### ***Pedro Mariskala***

Konfidantza eragiten zuen horietako izanik, Joan III eta Katalinaren konfiantzazko militarra izan zen. Beste askori bezala, herriak asko maitatzen zuen. Militar estratega bikaina izan zen, izan ere Nafarroako armada burua izan zelako. Bere soldaduak hartu zituztenean, Pedro eta beste kargu gorenak bere burua entregatu zuten, soldaduak askatzeko. Kargu gorenak askatuak izan baziren ere, Pedro ez zuten askatu. 1523an, Karlos I. goak Pedro mariskalaren biziarekin bukatzeko agindua eman zuen, nafarren matxinadekin bukatuz.

### ***Rose Iturbe***

Apirilaren lehen egun batean jaio zen Rose, Maria eta Jeanen haurra, Saratar famili euskaldun arrunt batean. Neskatila alaia zen eta Xantakoenea, ondoko baserriko haurrekin jolasean ibiltzen zen. Hiru urte ingururekin ederki moldatzen zen euskaraz Rose txikitxoak. Martxoaren 4eko gauean, tripako minak jota zebilen Rose. Hurrengo egunean erbesteratu zituzten soldaduak eta Biarnoaldeko Peyrehorade herrira heldu ziren. Bertan, gaixotasuna sendatu ezin izanagatik hil zen Rose gaixoa, egoera latzean.

### ***Agosti Xaho***

Zuberotar idazle hau, euskaldun amorratua izan zen. Ideologikoki sozialista utopikoa sentitu eta liberala izan arren, foruen babesle amorratua ere izan zen. Bere pentsaerak, liburu bat idaztera bultzatu zuen, horrekin, European zehar Euskal Herriko mugimenduaren berri emateko.

### ***Manuel Santa Kruz***

Manuel Santa Kruz bigarren karlistaden garaiko euskal apaiza zen. Bere izaerak bultzatuta, foruen defentsan gogor ekin zuen. Birritan preso hartu zuten eta bitan ere ihes egitera lagundu zuten bi baserritar. Gizon karismatikoa zen eta bere ekintzetara jendea elkartzea lortzen zuen, izugarrizko taldeak osatzera heldu arte. Apaizaren buruari prezioa jarri ziotenean, alde egitea deliberatu zuen eta Londresen zela, Karlos erregearen bisita izan zuen. Honek armetara itzultzeko erregutu bazion ere, bazuen Amerikara joateko erabakia hartuta eta ezezko borobila eman zion erregeari. Santa Kruzen ihesa lur jota utzi zituen euskaldunen gogoak eta guda irabazi zuten berriz ere liberalek.

### ***Fortunato Agirre***

Espainiako bigarren errepublika garaian Lizarrako alkate liberal eta nazionalista zen Fortunato. Pozik zegoen bere lana eta familiarekin, nahiz eta bi seme izan, bere emaztearen haurdunaldiak posez zoratuta zuen alkatea. Falangistak eta karlistak altxatu zirenean, preso hartu zituzten liberalak eta nazionalistak, haien artean Fortunato. Beste hainbat eta hainbat preso bezala, Fortunato fusilatua izan zen, askatasunaren aldeko oihuak esaten zituela.

### ***Gloria Rekarte***

Iruñako gazte nazionalista zen Gloria Rekarte. Trantsizio garaia bizitzea tokatu zitzaion eta garaiko egoera ikusita eta bere izaera nazionalistak ETArri informazioa pasatzera bultzatu zuen. Urte batzuk lan hori egiten egon ondoren, taldean sartzeko baimena eskatu eta komando bat sortu zuen beste bi kideekin. Bitan Guardia Zibilaren eskutan erortzeko arriskuan egon bazen, hirugarren aldi batean harrapatu zuten. Hamar egunez inkomunikatuta eta torturatua izan zen, beste hainbat eta hainbat euskaldun bezala. Espetxean denbora bat igaro ondoren 2000. urtean libre etsi zuten.

### ***Baliabideak***

Katearen Begiak nobelak, baditu zati astunak, baina idazteko estiloari dagokionez bikaina da. Nire ustez, ederki menperatzen ditu Iñakik idazteko dauden baliabide guztiak eta horrela ikustarazten digu liburuan. Konparazioak, deskripzioak eta baita metaforak ere erabiltzen ditu, bere pertsonaien bizipenak zehaztasun askorekin adieraziz. Sentimenduei asko erreparatzen die, eta modu bitxian irakurleari, niri behintzat bai, sentiaraztea lortzen du. Egituraketari dagokionez narrazio bakoitza besteekiko independentea izan arren, guztiak linealak dira.

## Iritzia

Dударик gabe, Iñaki Petxarromanen estiloa bikaina da eta ederki idazten du. Nahiz eta atal batzuetan irakurketa astuna izan, bere idazteko erak liburua atsegina izatea lortzen du. Egoera, sentimenduen eta baita lekuen deskribapenak izugarritzko era ederrean egiten ditu, horren adibide dira aukeratu ditudan narrazioaren ondorengo zatiak:

*«Gaua zen. Basamortuko gau izartua kolore moreez sartzen zen jauregian leihoetako zirrikituetatik. Halako batean, Iratiko pagoen hostoen dardararen doinua, Kantauri itsasoaren orro gazia eta Ebro ibaiaren xuxurlatze gozoa sentitu zituen ezpain bustietan erregeak.» (19. or.).*

Momentuaren deskribapen polita egiteaz gain, Euskal Herriko deskribapen zoragarria egiten du eta erregeak bere herriari dion maitasuna adierazten du, Euskal Herriko parajerik ederrenak elkartzen ditu eta herriaren arima eta nortasuna adierazten ditu.

*«—Ez da posible izanen jauna. Jazzirak Alaren aginduei traizio egin zien, eta eguzkiaren argitasuna berriz ikusteko eskubidea galdu egin zuen. Alaren zigorra jasoa du jadanik —erantzun zion mairuak. (...) Ez amorrurik, ez penarik, ez saminik... Sentimendurik gabe, ia hutsik sentitu zen Antso erregea hitz haiek entzunda, bazter madarikatu hartatik lehenbailehen irteteko gogoz.» (26. or.)*

Antso Azkarrak, bere bihotza bete eta aurrera joateko indar ematen zionaren heriotza ezagutzen du. Maitasuna, eder bezala, mingarria da oso, eta maitearen heriotza, bihotza husten dizu. Izan ere, Jazzira erregearen bihotza betetzen bazuen, bere faltak hutsik husten du. Zati hau, sentimenduen eta maitasunaren adierazpide perfektua iruditzen zait, “Ez amorrurik, ez penarik, ez saminik...” esaten duenean, Petxarromanek ederki adierazten du maitalearen faltak, bihotzean husten duen hutsunea

*«Gaua zen, udako gau beroa Nafarroako Pirinioen magalean. (...) erretako etxeen suteek argitzen zuten gauaren iluna. Gizonak, emakumeak, haurrak, etxeetatik kanpo zebiltzan, noraezean. (...) —Utz nazazue bakean —emakume euskalduna deus ulertzen ez zien soldadu arrotzei begira zegoen, ikarak jota, bere onetik aterata. (...) lau gizonezko emakume gazte bat bahitua zuten asmorik zekenarekin (...) Emakumea biluzik zegoen, etxearen zutarri bati eskuak loturik. Lau soldadu gaztelarretako batek, agintzen zuenak, galtzak jeitsi zituen, emakumea bortxatzeko asmoz. Une horretan, baina, inguruko hamar gazte euskaldun, Luxako jaunaren aginduetara, etxera sartu, eta deus egiten utzi aurretik, lepoa moztu zieten gaztelarrei. Emakumea jantzi eta beraiekin eraman zuten.» (39-40. or.)*

Zati honetan, Petxarromanek, gerraren ondorio latzak agertzen ditu. Jendea noraezean, etxeak sutan...adibide eta deskribapen politak egiten ditu, baina niri, benetan sentiarazi nauen zatia, hainbestetan gertatu eta salatzen diren egoerak deskribatzen dituen zatia da, emakumeen bortxaketak hain zuzen. Gerra garaian, egoera hauek gehiagotan errepikatzeaz gain, modu nazkagarriagoan, posible bada, gertatzen ziren, narrazioan esaten den bezala hainbat soldaduen artean adibidez, edo senideen aurrean. Zorionez, eta kontakizun honetan gertatzen den bezala, gizonezkoen gehiengoak, emakumea baloratu eta zuzen jokatzeko du, emakumea soldadu arrotzen eskuetatik salbatzen duten hamar gazte euskaldunak bezala.

*«Tiroen hotsa nagusitu zen hurrengo minutuetan Baztango mendi zokoetan. Eta bat-batean, isiltasuna, isiltasun gordina eta harrigarria, zirimirri leunak bakarrik urratzen zuena.» (44. or.)*

Esaldi ederra da hau, kontrastean jartzen ditu tiroen hotsak eta bat-bateko isiltasuna. Halaber, zirimirriak, momentuaren irudi tristea adierazten dit. Batetik idealak eta bakoitzak berea defendatzeko nahia tiroetan eta bestean borrokaren alde beltza, heriotza eta beraz isiltasuna argi adierazten du autoreak esaldi honetan.

*«Eguzkia Larrun mendiaren atzean ezkututzen ari zen ordurako. Ilunabarra zen, bederatziak inguru, eta eguzkiak ezkutatu ahala, soineko gorria jantzen zion zeru mugari, naturaren gutizia ezin dotoreagoan.» (68. or.)*

Gustuko ditu Iñakik naturaren deskribapenak, eta gualdean eguzkiak sortutako paisai bereziak are gehiago. polita da erabiltzen duen metafora, “soineko gorria jantzen zion zeruari”, gaueko zeruaren kolore gorrizka adierazteko.

*«Sei edo zazpi ordu iraun zuen borrokak (...) Putreen hegaldia etengabea izan zen goiz horretan, borroka izan zen lurrean ehunka lagun hilik ziren seinale. Ehunka edo milaka putre bildu ziren, norabide guztietatik iritsitakoak gorputz beterik izanen zen ingurura.» (74. or.)*

Borrokaren gogortasuna eta bukaerako paisai beldurgarria adierazteko, putreen presentziaz hitz egiten du Petxarromanek. Ehunka edo milaka putreen hegaldia etengabea izanik, lurra gorputz odoltsuz betea egon beharko luke, guztiz paisai desolatuaren irudia da autoreak adierazi nahi diguna alegia.

«—*Maria, irauin egin behar dugu. Guregatik ez bada ere, umearengatik, eta barruan duzun beste umearengatik. Ekaitza igaroko da, etorriko da barea, eta gutxien espero dugunean, etxean izanen gara berriz, bata bestearen ondoan, bata besteari begira.*» (85. or.)

Maitasunaren muga gaindiezinak argi ikusten dira bikote batek egoera latza igarotzen ari denean, are gehiago familia bat denean, seme-alabekin. Egoera nahi bezala izan ez arren, indarrak atera behar dira aurrera egiteko, eta maitasunak indar horiek ematen ditu. Oso modu ederrean adierazten du Iñakik seme-alabekiko izan daitekeen mugarik gabeko maitasuna, eta nola momentu gogorrenetan ere aitzinera egiten den.

«*Umea beso artean, burua Jeanen bularrean jarrita, malko bat begietan, lo geratu zen emakumea.* » (86. or.)

Kasu honetan ere, sentimenduen inguruan mintzo da idazlea, ama batek bere semea sufritzen ikustean sentitzen duen mina alegia. Nola bere gosea eta minak ahaztu ditzakeen bere semea sufritu ez dezan, ederra da egiten duen amaren adierazpena.

«*Mendiz mendi, geratu gabe, dozenaka kilometro egiten zituzten Santa Kruzek eta bere mutilek, etengabe, atzean zituzten soldadu liberalak despistatzeko.*» (138. or.)

Ihesaren egonezinak, presak eta beldurrak dakarkit burura ataltxo hau. Gerran ezin gelditu, ezin pentsatu eta ezin nekatu ibili behar da, etsaia harrapatu nahi ez baduzu, benetan egoera latza.

«*Zerura begiratu eta errezatzen hasi zen. “Gora Euzkadi askatuta!” oihukatu zuen gero, bala batek eztarria zulatu aurretik. Beste sei sartu zitzaizkion ondoren bular aldetik eta sabeletik. Balantzaka erori zen lurrera, hilda, udazkenean lizarraren hostoa erortzen den bezala, kulunka, baina norabide jakinean, lurrera heldu arte.* » (192. or.)

Herria maitatzeagatik hil zituzten hainbat eta hainbat pertsonen heriotza izan zitekeen hau, azkenerarte herriaren askatasuna bihotzean izandakoena. Fusilamentuak egiten zituzten soldadu piztien esku, bala bat baino gehiago jaso zituztenak ez ziren gutxi izan. Narrazioaren zati honetan, Euskal Herri osoan zehar egondako hilkuntza krudelak gogorarazi nahi dizkigu idazleak.

«*Askatasunaren haizea bezala joan zen, beste norabait, eta preso utzi zituen herrikide guztiak. Hala sentitzen zen Gloria, erregimen faxista baten preso, urte gehiegi irauten ari zen erregimen faxista baten mendeko eta gatibu.*» (194. or.)

Euskal Herrian, erregimen faxistak sortutako askatasun ezaren egoera jasangaitza adierazten du zati honek, eta baita euskaldunongan izan zuen ondorioa. Jendea ezin zuen egoera horretan denbora luzez irauin eta hori nabaria zen gizartean.

## *Bibliografia*

Lana osatzeko erabili dudan materiala hurrengo leku hauetatik hartu dut:

*Katearen begiak*, I. Petxarroman. Txalaparta

*Lehen hiztegia*, Ihardun eta Abril

Internet, <http://www.rebellion.org/spain/030716gara.htm>